



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Dialogoko hirugarren subjektua:
herri politikak ko-sortzeko
prozesuak demokratizatzeko
marko kontzeptuala**

Naia Begiristain Etxezarreta

187-194 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.24>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Dialogoko hirugarren subjektua: herri-politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatze marko kontzeptuala

Naia Begiristain Etxezarreta

Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustuko Unibertsitatea
naia.begiristain@orkestra.deusto.es

Laburpena

Doktoretza tesiak demokrazia liberalen krisiari heltzen dio, herri politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatze marko kontzeptualaren bitartez. Bere gain hartu ditu komunikazio dialogikoaren teoriak, ekintza kolektiboaren aktibazioa dialogoaren ikuspegitik eta herri politiken testuinguratzea. Esparru metodologikoak uztartu ditu lurralde garapenerako ekintza ikerketa eta diskurtsoaren analisia. Kultura Politiko Berriko deliberazio taldearen kasua hartu du aztergai, eta marko kontzeptualak ahalbideraturiko analisiak lau etapa azaleratu ditu: adituaren fasea, jakintzaren demokratizazio fasea, ekintza sukar fasea eta jariakortasun fasea. Marko kontzeptualak hirugarren subjektua jarri du herri-politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatze ardatzean, eta modu horretan ekarpen hirukoitza egin dio ezagutza eremuari: ekarpen teorikoa, metodologikoa eta analitikoa.

Hitz gakoak: herri-politiken ko-sorkuntza, lurralde garapenerako ekintza ikerketa, diskurtsoaren analisia, eraldaketarako dialogoa, herri-politiken demokratizazio prozesuak

Abstract

The doctoral dissertation addresses the crisis of liberal democracies through the conceptual framework for the democratization of the processes of co-creation of public policies. The theoretical approach is composed by theories of dialogic communication, activation of collective action through the dialogic perspective and the contextualization of public policies. The methodological framework combines action research for territorial development along with discourse analysis. The analysis made possible by the conceptual framework has revealed four stages throughout the whole deliberation process: the expert phase, the knowledge democratization phase, the action-fever phase and the fluidity phase. The conceptual framework has placed the third subject on the axis of democratization of the processes of co-creation of public policies, thus making a triple contribution to the field of knowledge: theoretical, methodological and analytical.

Keywords: co-creation of public policies, action research for territorial development, discourse analysis, dialogue for transformation and public policy making democratization processes

1. Sarrera eta motibazioa

Ingurune nahasiek, ezagutza ezegonkorak, mundu mailako mendekotasun sistemak eta konponbide kontrajarriek ezaugarritzen dute koronabirusaren izurritearen osteko errealitatea (Bouckaert & Galego, 2024). Testuinguru horretan, demokrazia liberalak zilegitasun eta eraginkortasun krisian murgilduta daude. Krisi hori irudikatzen du gizarte zibilaren desatxikimenduak erakunde publikoekiko eta politikarekiko. Ildo horretan mahaigaineratu dute hainbat ikerketek ohiko parte-hartze politikoaren beherakada iraunkorra, gobernuekiko eta alderdi politikoekiko mesfidantza eta elite politikoek herritarren beharrei erantzuteko ezigaitasunaren pertzepzio orokortua (Dalton, 2004; Mounk, 2018).

Alabaina, aldaketa kontzeptual hori erakunde publikoak eta gobernantza prozesuak birpentsatzeko abagunea da. Demokrazia liberalen krisiari aurre egite aldera, doktoretza tesiak ekarpena egin nahi dio herri politiken ko-sortze prozesuak demokratizatzeari. Motibazio horren atzean daude doktoretza tesiaren helburu nagusia eta kasuaren aukeraketa. Kasua Kultura Politiko Berriko deliberazio espazioaren bilakaeran oinarritzen da. Kultura Politiko Berriko deliberazio espazioa, Etorkizuna Eraikiz Think Tank-en lau deliberazio taldeetako bat izan zen. Era berean, Etorkizuna Eraikiz Think Tank Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020-2023 bitartean bultzaturiko ekimena da. Berrikuntza demokratikoa helburu izanik, hausnarketarako eta herri-politikak lantzeko jarrera berriak sustatu nahi zituzten, deliberazioan, esperimentazioan eta herri-politiken ekintzan oinarriturik.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Demokrazia liberalen edo ordezkaritza-krisiaren baitan, herri-politikak ko-sortzeko prozesuak sustatu dira erabaki kolektiboak modu parte hartzailean hartzeko mekanismo inklusibo gisa. Hala ere, zenbaitetan, prozesu horiek botere harremanek baldintzatzen dituzte. Era berean, botere harremanek prozesuko eragileen parte hartzea baldintzatzen dute. Herri-politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatzeko saiakerak egin diren arren, dialogo horizontala eta parte hartzailea bermatuko duten ikuspegi dialogikoak bultzatzeko zailtasunek hor diraute (Millán, Santander, Aguirre & Garrido, 2015). Doktoretza tesian landutako ikerketa arazoa ondorengoa da: ko-sorkuntzak zein lankidetzazko gobernantzak berrikuntza eta zilegitasun demokratikoa indartzea helburu duten arren, hutsunea dago diskurtso mailako konpromezuetatik ekintzara. Ko-sortzearen izaera normatiboak, maila teorikoan, ekintzak sortzen dituen zailtasunekin talka egiten du: herri-politiken arduradunen boterea horizontalizatu eta gobernantza sareen baitan herri-politikak ko-sortzeko ekimenak sistema publikoak berak oztopatzen ditu (Torfing, Sørensen & Røiseland, 2019).

2.1 Ikerketaren helburuak

Doktoretza tesiak, aurrez aipaturiko arazoa ardatzean hartuta, helburu nagusi bati erantzuten dio: herri-politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatzeko marko kontzeptuala garatzea. Helburu nagusia betetzeko, bost azpi-helburu definitu dira.

- 1) Oinarri teorikoak sendotzea, 1) komunikazioaren teorien berrikuspen kritikoa eginez, 2) ikuspegi dialogikoaren oinarri teorikoetan sakonduz, dialogoa ekintza kolektiboaren oinarri egituratzaile moduan kokatzen duten ikuspegietan azpimarratuz, eta 3) elkarreragin dialogikoak herri-politiken arloan kokatuz.
- 2) Literaturaren berrikuspen kritikoa identifika-tutako diskurtso akademikoen kategorizazio lanketa egitea, herri-politikak ko-sortzeko marko kontzeptualaren oinarritzko ezaugarriak identifikatu eta marko kontzeptuala analisirako tresna moduan osatzeko.
- 3) Hautatutako testuetako herri-politiken diskurtsoaren analisi kritikoa egitea, identifika-tutako kontzeptuen kategorizazioan eta marko kontzeptuala analisirako tresna moduan erabiliz.
- 4) Herri-politiken diskurtsoaren analisi kritikoa oinarrituta, diskurtso hegemoniko eta normatiboekiko alternatiba diskurtsibo zein esperientzialak proposatzea.
- 5) Herri-politikak ko-sortzeko dialogoaren marko kontzeptualeko azken bertsioa definitzea, doktoretza tesian sakondutako ikuspegi teoriko, analitiko eta esperientzialetan oinarrituta.

Lehenengo azpi-helburua marko teorikoko hiru ataletan osatu da. Bigarren azpi-helburuari erantzuna eman zaio marko kontzeptualeko atalean. Hirugarren eta laugarren helburuei heldu zaie marko enpirikoko lau ataletan. Bosgarren helburua, azkenik, ondorioen atalean landu da. Helburu nagusia, bestetik, zeharkako helburua da, eta doktoretza tesiko ondorioen atalean du azken erantzuna.

2.2 Marko teorikoa

Doktoretza tesiko marko teorikoak hiru iturri nagusi ditu: komunikazioaren teorien berrikuspen kritikoa, ikuspegi dialogikoaren oinarrien errebisioa, eta dialogoaren kokapena herri-politiken alorrean.

Komunikazio teorien berrikuspenari dagokionez, oinarritzko ekarpenak jaso dira, klasikoak zein gaurkotasan handiko iturriak. Komunikazio ekintza informazio difusio linealetik edo informazio elkartruketik banandu da. Aitzitik, nabarmendu da, botere harremanak, esanahi partekatuak eta ekintza kolektiboak bultzatzen dituen ekintza dela komunikazioa (Barranquero & Sáez Baeza, 2012; Barranquero & Treré, 2020; Ferrón, Barranquero & Sáez Baeza, 2022).

Ikuspegi dialogikoei dagokienez, foku berezia hartu dute dialogoaren filosofiari lotutako lanek. Kapituluaren aurrera egin ahala, dialogoaren ekintza kolektiboaren oinarri egituratzaile moduan kokatu duten ikuspegiak hartu dute ardatza (Phillips, 2012; Phillips, 2012; Phillips & Scheffmann-Petersen, 2020).

Herri-politiken alorreko testuinguratzeari dagokionez, lankidetzazko gobernantza, herritarren parte hartzea eta demokrazia deliberatiboa lantzen duten markoak jaso dira. Fokua, gehienbat, herri-politiken ko-sortzearen inguruko literatura berrikuspenean jarri da (Ansell & Gash, 2008; Fung, 2015; Escobar, 2018; Bouckaert & Galego, 2024).

2.3 Metodologia esparrua

Kultura Politiko Berriko deliberazio taldearen kasua eraiki da lurralde garapenerako ekintza ikerketaren printzipioak oinarri hartuta: hala nola, hausnarketa, ekintza, praxia eta parte hartzaileen arteko dialogo irekia. Lurralde garapenerako ekintza ikerketa hurbilketak helburu du gizarte eraldaketa demokratizazio handiagorantz bideratzea. Horretarako, ikerlari erraztaile taldeak ekintzara bideratzen du ezagutza akademikoa, lurraldeko eragileen arteko dialogo prozesu parte-hartzaileen bitartez (Larrea, 2019). Lurralde garapenerako ekintza ikerketa 2014an kontzeptualizatu zuten lehen aldiz James Karlsen eta Miren Larreak, eta bere baitan biltzen ditu oinarri teoriko nagusitzat eskualdeko berrikuntza sistema, politiken analisia zein ekintza ikerketa literatura (Estensoro, 2012; Estensoro, 2015; Estensoro & Larrea, 2016; Arrona, 2017; Karlsen & Larrea, 2017).

Prozesuan sistematizatutako dokumentuak aztertzeke, alegia, Kultura Politiko Berriko Think Tankeko memoriak aztertzeke, herri-politiken analisi kritikorako diskurtsoaren analisia erabili da. Herri-politiken analisi kritikorako diskurtsoaren analisia analisi metodo moduan hautatzea ez da ausazkoa: doktoretza tesiko filosofia metodologikoarekin bat dator. Ekintza ikerketaren bilakaeran zein herri-politiken analisisiko arloan bira dialogikoarekin batera, narratiben analisi eta interpretazioa mahai gaineratu duten hainbat ikerketa lerro zabaldu dira. Horien printzipioak oinarri hartu ditu doktoretza tesi honek diskurtsoaren analisia garatzeko. Hala nola, ondorengo ikerlarien lanetan inspiratu da: Bjørn Gustavsen (2020), Louise Phillips (2012, 2018), Nicolina Montessano Montessori, Jane Mulderrig eta Michael Farrelly (2019), Sarah Cummings, Leah de Haan eta Anastasia-Alithia Seferiadis (2020), eta Nicolina Montessano Montessori (2023).

3. Ikerketaren muina


Doktoretza tesiaren muina marko kontzeptualean zein herri-politiken diskurtsoaren analisi kritikorekin emaitzetan dago.

3.1 Marko kontzeptuala

Herri-politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatzeko dialogoaren marko kontzeptuala hiru dimentsio nagusik eta bi bitartekarik osatzen dute. Dimentsio horiek dira dialogoaren subjektuak: norbanakoa, bestea eta taldea. Norbanakoak aktore bat edo aktore talde bat ordezkatzeko du. Norbanakoak identitate propioa du, bere helburuak, mundu-ikuskera, sinesmenak eta etika ditu, eta prozesua menderatzeko jarrera zein ideia zehatzak irudikatzen ditu. Besteak ere bere nortasun propioa du, helburu, mundu-ikuskera, sinesmen eta etika propioekin. Pertsona edo eragile talde bat ordezkatzeko du. Jarrera zein ideia zehatzak irudikatzen ditu, zenbaitetan, prozesuarekiko ideia hegemonikoak zalantzan jartzen dituztenak. Azkenik, taldea subjektu kolektiboa dela esan liteke. Norbanakoaren eta bestearen arteko elkarreaginean eraikitzen da. Era berean, bere identitate propioa osatzen du, bere helburu, mundu-ikuskera, sinesmen eta etika propioekin.

Marko kontzeptualeko subjektuen arteko harremana ulergarri bihurtzen da elkarreagin eta tentsioen bitartez. Elkarreaginak norbanakoa, bestea eta taldea elkarren aldera erakartzen dituen indarra da. Tentsioa, bestetik, hiru dimentsioak elkarrengandik aldentzen dituen bultzada da.

1. irudia. Herri-politikak ko-sortzeko prozesuak dialogoaren bitartez demokratizatzeko markoa



3.2 Analisisiko emaitzak

Kultura Politiko Berriko deliberazio taldearen bilakaera aztertzeke baliatu da marko kontzeptuala. Deliberazio taldean sistematizatutako dokumentazioa aztertu da diskurtsoaren analisiaren bitartez. Horretarako, marko kontzeptualetik eratorritako 30 kategoria erabili dira. Prozesua 2020ko ekainaren 17an hasi eta 2023ko martxoaren 23an amaitu zen. 24 saio izan zituen eta kultura politiko berria sustatzeko hausnarketarako zein herri politikak ko-sortzeko eragile estrategikoak bildu zituen. Hala nola, herri politiken arduradunak, adituak, unibertsitate ikerlariak eta lurraldeko erakunde estrategikoetako eragileak.

Herri politikak ko-sortzeko prozesuak demokratizatzeko dialogoaren markoaren bitartez eta marko horren arabera, lau etapa esanguratsu identifikatu dira deliberazio espazioaren bilakaeran.

Identifikatutako lehenengo fasea adituaren fasea da. Lehenengo fasetik zortzigarreneira luzatu da. Adituaren fasean, adituaren rolak zein jakintza adituak du zentraltasuna eta zilegitasuna ezagutza sortzeko prozesua bideratzeko. Saio bakoitza adituaren irudiaren inguruan egituratu da eta hark markatu ditu deliberazio taldearen dinamikak. Saioen garapenean zehar, adituak zenbaitetan itsasargi moduan ere jokatu du. Hau da, lehenik gaiaren inguruko azalpena egin du eta ondoren, erraztaileek proposatutako eztabaidarako galderen inguruko hausnarketa egin dute parte hartzaileek, adituak aurkeztutako gaia ardatzean harturik. Dialogoko dimentsioei dagokienez, norbanakoaren rola indartsua da lehenengo fasean, baina bestea kritikoa zein talde izaera absenteak dira.

Identifikatutako bigarren fasea jakintzaren demokratizazio fasea da. Bigarren fasea bederatzigarren saiotik hamahirugarreneira luzatu da. Jakintzaren demokratizazio fasean saioak parte hartzaileen arteko elkarreraginak eta harremantzea bultzatzeko egituratu dira. Hortaz, indartu dira Kultura Politiko Berriko deliberazio prozesuko parte hartzaileen esperientzia eta jakintza sortzeko gaitasuna. Ezgautzarekin harremantzeko itsasargi moduan lan egiten duen aditutik haragoko ereduak landu dituzte. Modu horretan,osatzen hasi da deliberazioko eragileen arteko hizkuntza partekatua. Bestea subjektua zein taldea subjektua lehenengo fasean baino askoz identifikagarriagoak dira.

Identifikatutako hirugarren fasean, alegia, ekintza sukar fasean, Kultura Politiko Berriko deliberazio taldeko hainbat eragile nabarmendu dute deliberazio espazioa ez dela iritsi iritsi beharko lukeen helburuetara. Identifikatutako hirugarren fasea garatu da hamalagarren saiotik hemeretzigarren saiora. Hau da, deliberazio espazioa ez dela iritsi ekintzara, edo lortutako

ekintza, behintzat, ez dagoela deliberazio espazioko hausnarketarekin lotuta. Hori horrela, deliberazio espazioaren metodologiak berdefinizioa behar duela erabaki dute. Funtsean, metodologia aldaketarekin identifikatutako lehenengo faserako itzulera gertatu da: adituaren jakintza erdigunean jarri eta aurrez suposatzen dute iritsiko direla adituaren hausnarketarekin ekintzara. Hori horrela, metodologia berriak erabakimena erdiratu du Think Tankeko Zuzendaritza taldean eta deliberazioa bideratu da gai jakin batzuetara.

Identifikatutako laugarren fasean, jariakortasun fasean, prozesua aurrera egiten ari da erresistentzia handiegirik gabe. Identifikatutako laugarren fasea garatu da hogeigarren saiotik 24. saiora. Jada frogatu dira deliberaziorako hainbat modelo, eta egiaztatu da modelo horien arteko oreka behar dutela. Identifikatutako lehenengo hiru faseetan eztabaida izan dute teorian edo ekintzan fokua jartzen duten modeloen artean; eztabaida izan dute prozesuaren izaera lineal edo elkarreraginetan oinarritutakoaren artean. Deliberazio espazioaren amaiera iristen ari da, prozesua bera amaitzen ari delako, batetik, eta hauteskunde-aldia iristen ari delako, bestetik. Hauteskunde-aldiarekin batera, deliberazio espazioak ateak itxiko ditu. Deliberazio espazioaren amaiera aldera, taldekide asko gaian ahaldundu dira eta euren ahalera garatu dutela iragarri daiteke: eztabaidetan aktiboki parte hartzen dute. Elkarreraginak eta tentsioak biziak diren arren, erresistentzia gehienak apaldu dira.

4. Ondorioak

4.1 Ekarpen teorikoa

Doktoretza tesiak ekarpena egiten dio literatura-gorputzari bi eremutan: lehenik, lurralde garapenerako ekintza ikerketan; bigarrenik, dialogoaren teoriari. Lurralde garapenerako ekintza ikerketari eginiko ekarpen nagusia da dialogoko hirugarren subjektua bera, lurraldeko elkarreraginei harremanak eta talde dimentsioa gehitzen baitizkie. Dialogoaren teoriari eginiko ekarpen nagusia da, bestetik, hirugarren subjektuak bere baitan dakarren lurraldetasun ikuspegia. Alburquerquek (2012) proposaturiko lurralde kontzeptualizazioan oinarritzen da hirugarren subjektuak bere gain hartzen duen izaera. Alburquerqueren (2012) lurralde ikuspegiak kokaleku geografiko jakin batean bizi diren eragile multzo anitza hartzen du bere baitan, bertako egitura sozial, ekonomiko, politiko, kultura eta instituzionalak, zein lurralde horretako ingurune fisikoa.

4.2 Ekarpen metodologikoa

Doktoretza tesia garatu da jakintza arloko ezagutza-gorputzari ekarpena egiteko aburuz. Horregatik sortu da eraldaketara bideratuta dagoen dialogo prozesua jasotzen duen marko kontzeptuala. Markoaren helburua da “gu” baten edo talde izaera baten sorrera prozesua kontzeptualizatzea, lurralde garapenerako ekintza ikerketaren alorrari ekarpen metodologikoa eginez. Marko kontzeptuala bera frogatu da diskurtsoaren analisiaren bitartez Kultura Politiko Berriko deliberazio taldearen bilakaera aztertzeke.

4.3 Ekarpen analitikoa

Lurralde garapenerako ekintza ikerketa, herri politiken analisia eta diskurtsoaren analisia uztartzeko abagunea da doktoretza tesi hau. Ikuspegi anitzetatik egin da saiakera hiru diziplina horiek uztartzeko. Louise Phillipsek (2012, 2018, 2020) *The Promise of Dialogue* (2012) lanaren bitartez komunikazio teoria dialogikoen ikuspegitik elikatu du ekintza ikerketa. *Critical Policy Discourse Analysis* (2023) liburuan Nicolina Montesano Montessorik bateratzen ditu diskurtsoaren analisi kritikoa eta herri politiken analisia, ekintza ikerketa parte hartzailearen ikuspegitik. Diziplina arteko zubia landu dute Montesano Montessorirekin batera Jane Mulderrig eta Michael Farrellyk (2019) edota Sarah Cummings, Leah de Haan eta Anastasia-Alithia Seferiadisek (2020).

Doktoretza tesi honek diziplina arteko zubi hori du jomuga. Horretarako, diskurtsoaren analisirako tresna bat erabiliz aztertu da lurralde garapenerako ekintza ikerketa prozesu bateko

sistematizazioa. Analisiari dagokionez, diziplina arteko gurutzaketa emankorra izan da ondorengo hiru arrazoiak direla medio:

- Lehen, lurralde garapenerako ekintza ikerketaren sistematizazioak diskurtsoaren analisi sakona egiteko dokumentazio aukera zabala eskaini du. Hiru urteko ikerketa prozesua sakon dokumentatu zen, formatu idatzi, bisual eta grafikoetan.
- Bigarrenik, dokumentazio aukera zabalarik eta diziplin arteko lanketari esker, diskurtsoaren azterketa sakona egin da. Hori dela eta, ikerketa prozesuko joerak sistematikoki kategorizatu dira.
- Azkenik, analisiak lurraldetasunaren eta harremantzearen ikuspegi sinbiotikoak uztartu ditu. Modu horretan, analiza egiteko hurbilpena findu da eta diziplina artekotasuna aberastu da.

4.4 Ikerketa baliozkotzea

Atal honetan landu da marko kontzeptualaren eta diskurtsoaren analisisiko emaitzen baliozkotze prozesua. Horretarako erabili da James Karlsenek eta Miren Larreak (2014, p. 151-161) proposatutako ikerketaren baliozkotze taula. Azken helburua egindako ikerketa baliozkotzea izanik, baliozkotze markoaren baitan lau koadranteen oinarri filosofikoak atzertzen dira: barne-sinesgarritasuna, kanposinesgarritasuna, bideragarritasuna eta konektagarritasuna.

Baliozkotzea ez dago mugatuta lurralde garapenerako ekintza ikerketara. Are gehiago, zinez tresna baliagarria izan daiteke gizarte-zientzietako beste diziplina batzuetarako. Hala nola, doktoretza tesi honetan egin den moduan, prozesu baten analisiaren inguruko ikuspegi desberdinak balioztatzeke.

1. Taula. Ikerketaren baliozkotze taula. (Karlsen & Larrea, 2014)

	Barnekoa (kontzeptua edo markoa garatu den testuinguruan izan diren parte hartzaileentzat)	Kanpoko (kontzeptua edo markoa garatu den testuinguruan izan ez diren ikerlari edo herri politiken arduradunentzat)
Zentzua du	Barne-sinesgarritasuna	Kanpo-sinesgarritasuna
Aplikatu da hausnarketa prozesu zein ekintza zehatzetan	Bideragarritasuna	Konektagarritasuna

Labur bada ere, jarraian taulako koadrante bakoitza azalduko da. Bideragarritasunak aztertzen du ekintza ikerketa prozesuaren bitartez sortutako ezagutzaren baliagarritasuna prozesuko parte hartzaileentzat (Greenwood eta Levin, 2007). Sinesgarritasunak zuzenean egiten dio erreferentzia ikerketaren emaitzen sinesgarritasunari berari. Sinesgarritasunak biltzen ditu ikerketaren emaitzetan konfiantza errazten duten argudio eta prozesuak (Greenwood eta Levin, 2007). Barne-sinesgarritasuna ezagutza sortu duten eragileekin egiten den kontraste prozesua da. Kanpo-sinesgarritasuna, aldiz, ezagutza sortu den testuinguruan parte hartu ez duten eragileekin egiten den prozesua da. Izan ikerlari edo herri politiken arduradun. Konektagarritasuna, azkenik, Karlsenek eta Larreak proposaturiko definiziotik (2014, p. 160) ulertzen da: konektagarritasuna da “kanpo-sinesgarritasunaren hurbilpen dialogikoa”.

Doktoretza tesiaren baitan kanpo-sinesgarritasunaren koadrantean sakondu da. Esperientzia hori landu zen ikerketa parte-hartzaile eta aldaketarekiko konprometitutako DAN 2024² kongresuan (Aalborg Unibertsitatea, Danimarka). Kanpo-sinesgarritasunaren baliozkotzea kongresuko doktoretza ikastaro baten baitan egin zen 2024ko azaroaren 6an. Doktoretza aurreko ikertzaileen proiektuak partekatzeko foroa sortu zuten eta doktoretza tesi hau urratsez urrats

2 DAN 2024 conference: Reaching out - participatory and engaged research for change. Informazio gehiago estekan: <https://www.kultur.aau.dk/reaching-out-participatory-and-engaged-research-for-change-e84659>

partekatu zen. Marko teorikoa eta kontzeptuala, metodologia eta emaitza enpirikoak sakon eztabaidatu ziren. Taldekideekin hausnarketa sustatzeko, Greenwood eta Levinen (2007) lanean oinarria duen galdera sorta bat proposatu zen:

- Zein iritzi duzue narratiba, emaitza eta kontzeptuen inguruan?
- Sinesgarria da?
- Aurkezturiko ezagutzak konbentzitzen zaitu?

Beste zenbait erantzunen artean, azpimarragarria da parte hartzaileetako batek eginikoa: «Narratibak zentzua du eta Kultura Politiko Berriko deliberazio taldearen bilakaera sinesgarria zein premiazkoa iruditzen zait. Kontatzeko modukoa da. Oso iradokitzailea izango litzateke gehiago sakontzea prozesuaren garapenerako inspiratzaileak iruditzen zaizkizun gizarte eta harremantze mekanismoetan. Etorkizunean lurralde garapenerako ekintza ikerketaren inguruan gehiago sakontzea gustatuko litzaidake.»³

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lurralde garapenerako ekintza ikerketa prozesuetan dialogoa prozesu konplexu eta dinamikoa da. Hirugarren subjektua konplexutasun horri aurre egiten saiatzen da, dialogoaren ikuspegi integralerako bideorria adieraziz. Interesgarria litzateke, beraz, segidan azaldutako ikerketalerroetan sakontzea:

- Interes berezia du hirugarren subjektuaren eta lurralde garapenerako ekintza ikerketa prozesuak erraztearen arteko elkarreraginak bide ematen duen abagunea azterketak.
- Lanketa esparrua da lurralde garapenerako ekintza ikerketaren eta komunikazio dialogikoaren teorien arteko harremana sakonago aztertzea: ezagutza ko-sortzearen eta eraldaketaren nolakotasunetan sakontzeko.
- Hirugarren jomuga da esparru kontzeptuala testuinguru praktikoetan aplikatzea. Modu horretan, ebaluatu daiteke a) hirugarren subjektuaren eraldaketa ahalmena; eta b) hirugarren subjektuak ko-sortze prozesuetan duen eragina.
- Marko kontzeptualaren teorizazioan sakontzen jarraitzea funtsezkoa da, bereziki, marko kontzeptuala ekintzan egiaztatu ostean. Interesgarria litzateke marko kontzeptualaren lurraldetasun dimentsioa berrikustea.

6. Erreferentziak

- Albuquerque, F. (2000). *Manual del agente de desarrollo local*. Santiago de Chile: Ediciones Sur. — (2012). «Desarrollo territorial». En Orkestra (ed.), *Gipuzkoa Sarean Working Document*. San Sebastián: Orkestra.
- Ansell, C., & Gash, A. (2008). Collaborative Governance in Theory and Practice. *Journal of Public Administration Research and Theory*, 18(4), 543-571. <https://doi.org/10.1093/jopart/mum032>
- Arrona, A. (2017) Can interpretive policy analysis contribute to a critical scholarship on regional innovation policy studies, Orkestra Working Paper Series in Territorial Competitiveness [Preprint].
- Barranquero, A., & Sáez Baeza, C. (2012). Teoría crítica de la comunicación alternativa para el cambio social. El legado de Paulo Freire y Antonio Gramsci en el diálogo norte-sur. *Razón y Palabra*, 80. https://www.razonypalabra.org.mx/N/N80/M80/03_BarranqueroSaez_M80.pdf
- Barranquero, A., & Treré, E. (2020). A historical and comparative perspective on the studies on alternative and community communication in Europe. En *Research Traditions in Dialogue: Communication Studies in Latin America and Europe* (1.^a ed., pp. 191-214). Publishing Media

3 Jatorrizko bertsioa: «The narrative made sense to me, and I also find the story of the New Political Culture Think Tank compelling and worth telling the rest of the world. It would be very inspiring to delve more into the social and relational mechanisms that you find generative for the process. And yes, I would certainly like to delve more into territorial action research in the future.»

- XXI. <https://www.alaic.org/wp-content/uploads/2022/02/Research-Traditions-in-Dialogue.pdf#page=191>
- Bouckaert, G., & Galego, D. (2024). System-quake proof ‘systemic resilience governance’: Six measures for readiness. *Global Policy*, 15(S6), 97-105. <https://doi.org/10.1111/1758-5899.13433>
- Cummings, S., de Haan, L., & Seferiadis, A. A. (2020). How to use critical discourse analysis for policy analysis: a guideline for policymakers and other professionals, *Knowledge Management for Development Journal*, 15(2). <https://km4djournal.org/index.php/km4dj/article/view/473/573>
- Dalton, R.J. (2004). *Democratic Challenges, Democratic Choices: The Erosion of Political Support in Advanced Industrial Democracies*. Oxford University Press.
- Ennals, R. (2020) Gustavsen, Björn: *Democratic Dialogue and Development*, The Palgrave Handbook of Organizational Change Thinkers.
- Escobar, A. (2018). *Designs for the Pluriverse: Radical Interdependence, Autonomy, and the Making of Worlds*. Duke University Press.
- Estensoro, M. (2012) Local networks and socially innovative territories: the case of the Basque region and Goierri county. Dissertation.
- Estensoro, M. (2015) How can social innovation be facilitated? Experiences from an action research process in a local network, *Systemic Practice and Action Research*, (22), pp. 527-545.
- Estensoro, M. & Larrea, M. (2016) Overcoming policy making problems in smart specialization strategies: Engaging subregional governments, *European Planning Studies*, (7), pp. 1319-1335.
- Ferrón, B., Barranquero, A., & Sáez Baeza, C. (2022). La comunicación desde abajo. Historia, sentidos y prácticas de la comunicación alternativa en España. *Revista De Comunicación*, 21(2), 321-322. <https://doi.org/10.26441/RC21.2-2022-R1>
- Fung, A. (2015). Putting the Public Back into Governance: The Challenges of Citizen Participation and Its Future. *Public Administration Review*, 75(4), 513-522. <https://doi.org/10.1111/puar.12361>
- Greenwood, D. J., & Levin, M. (2007). *Introduction to action research*. SAGE Publications, Inc., <https://doi.org/10.4135/9781412984614>
- Karlsen, J., & Larrea, M. (2014). *Territorial Development and Action Research: Innovation Through Dialogue*. Routledge.
- Karlsen, J. & Larrea, M. (2017) Moving context from the background to the forefront of policy learning: Reflections on a case in Gipuzkoa, Basque Country, *Environment and Planning C*, vol. 35(4), pp. 721- 736.
- Larrea, M. (2019) Una metodología para la construcción de gobernanza cooperativa: Compendio de los aprendizajes de una década de experimentación con la investigación acción para el desarrollo territorial en Gipuzkoa. Orkestra-Instituto Vasco de Competitividad.
- Millán, N., Santander, G., Aguirre, P., & Garrido, A. (2012). *LA COHERENCIA DE POLÍTICAS PARA EL DESARROLLO EN ESPAÑA*. 2015 y más. [https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-113042/Estudio_CPD\[1\].pdf](https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-113042/Estudio_CPD[1].pdf)
- Montesano Montessori, N. (2023). Critical policy discourse analysis.
- Mounk, Y. (2018). *The People vs. Democracy: Why Our Freedom Is in Danger and How to Save It*. Harvard University Press.
- Mulderrig, J., Montessori, N. M., & Farrelly, M. (2019). Critical policy discourse analysis.
- Phillips, L. (2012). *The Promise of Dialogue*. John Benjamins Publishing Company.
- Phillips, L.J. et al. (2018) De-romanticising dialogue in collaborative health care research: a critical, reflexive approach to tensions in an action research project’s initial phase, *Qualitative Research in Medicine and Health Care*, 2(1), pp. 1–13.
- Phillips L, Scheffmann-Petersen M. Minding the Gap Between the Policy and Practice of Patient-Centeredness: Cocreating a Model for Tensional Dialogue in the “Active Patient Support” Program. *Qualitative Health Research*. 2020;30(9):1419-1430. doi:10.1177/1049732320913855
- Torring, J., Sørensen, E., & Røiseland, A. (s. f.). Transforming the public sector into an arena for co-creation: Barriers, drivers, benefits and ways forward. *Administration & Society*, 51(5), 795-825. <https://doi.org/10.1177/0095399716680057>